

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure proiektua adin guztieko pertsonentzat ezinbestekoa eta beharrezkoa dela iruditzen zaigu. Azken finean guztiek batera aurre egin behar diogu arazo honi eta guztion artean kolaboratu behar dugu arazoari irtenbidea ateratzeko eta gure planeta bizitzeko leku hobe bat egiteko. Merkatuaren segmentazioa irizpide desberdinen arabera egitea erabaki dugu:

Lehenik eta behin, segmentazio demografikoa erabili dugu. Pertsonen adinaren arabera produktu desberdinak egitea erabaki dugu. Ume txikientzat zuzenduak dauden plater eta basoak egin ditugu. Hauek marrazki eta kolore desberdinak izango dituzte, haurren arreta deitzeko. Honelako basoak oso ohikoak dira haurren arteko festetan adibidez eta normalean irudi desberdinak edukitzeak haien arreta pizten du. Bestetik, gazte eta helduentzat beste motatako baso eta platerak egingo ditugu. Hauek kolore bakarrekoak izango dira (kolore desberdinak egongo dira) eta ez dituzte marrazkirik edukiko, neutroagoak izango dira. Egokiak izango dira lanean edo lagun taldean erabiltzeko. Hona hemen basoen adibidea:

UME TXIKIENTZAT PRODUKTUAK



HELDUENTZAT PRODUKTUAK



Jarraitzeko, irizpide demografikoa ere erabili dugu eta familien tamainak kontuan hartu ditugu. Ondorioz, tamaina desberdineko paketeak egitea erabaki dugu. Tamaina txikiko paketeak familia txikiei zuzenduta egongo dira eta bertan 5 ondasun sartuko ditugu. Tamaina erdiko paketeak aldiz familia handiagoentzat zuzenduak egongo dira eta bertan 20 ondasun sartuko ditugu. Azkenik tamaina handikoak 40 ondasuneko paketeak izango dira eta hauek familia handientzat edo festa desberdinentzat izango dira.

Azkenik, irizpide psikografikoa erabili dugu eta bizi-estiloak hartu ditugu kontuan. Tamaina desberdinetako produktuak egitea erabaki dugu. Alde batetik botila txikiak egitea erabaki dugu, kalera joaterakoan boltsoan edo motxilan eramateko modukoak. Produktu hauek egunerokotasuna kalean egiten duten pertsonentzat zuzenduak egongo dira. Beste aldetik botila handiak egingo ditugu eta hauek egunerokotasuna gehiago etxean egiten dutenentzat zuzenduta egongo dira, neberan gordetzeko tamainakoak dira. Botila handi hauek oso baliagarriak dira adibidez mendira egun pasa bat egitera joaten garenean erabiltzeko.